

2006ko ABENDUAREN 29ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, bi mila eta seiko abenduaren hogeita bederatzian, goizeko zortziak direnean, Alkatea: Joseba Egibar Artola; Udalkideak: Patxi Ezkiaga Ormazabal, Xabier Arrese Arratibel eta Jose Antonio Imaz Insausti; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETA 3/2006

Lizartzako Udal honen 2006ko Aurrekontuaren barnean Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den Kreditu-Aldaketarako espedientearen berri eman ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri ondoren, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion indarreko araudiari egokitzen zaiola eta, hortaz, bere aldeko txostena ematen baitu.

Onespena proposamena formulatzen duen Ogasun Batzordeak emandako aldeko irizpena irakurririk.

ERABAKI DA:

- 1.- Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, 37.733,72 €-tako zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orriskari ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.

2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondoan Kontuhartzailetza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

3.- 2007 URTERAKO AURREKONTU OROKORRA

Ekonomi Batzordean aztertuz gero eta, Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 149-4 artikulua eta Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzeko Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikulua eta Erregimen Lokaleko gaietan Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legearen 126.1 artikuluen arabera, 2007 urterako Aurrekontu Orokorra aurkeztu da, honela geldituaz:

SARREREN EGOERA

Kapitulua	Izena	Euroak
1	Zuzeneko Zergak	80.657,30
2	Zeharkako Zergak	5.500,00
3	Tasak eta Bestelako Zergak	53.170,26
4	Transferentzi Arruntak	414.772,44
5	Ondare Sarrerak	1.900,00
SARRERAK GUZTIRA		556.000,00

GASTUEN EGOERA

Kapitulua	Izena	Euroak
1	Pertsonal Gastuak	235.126,80
2	Gastuak Ondasun Arrunt eta Zerbitzuet	183.691,24
3	Finantza Gastuak	6.464,89
4	Transferentzi Arruntak	85.133,76
6	Inbertsioak	24.000,00
9	Pasibo Finantzarioak	21.583,31
IRTEERAK GUZTIRA		556.000,00

2007 urterako Aurrekontu Orokorra eta bera Egitaratzeko Oinarriak, aho batez onartuak izan dira.

2007 URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA

KARRERAKO FUNTZIONARIENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

IZENA	Lanp. Kop.	T.6/89 L. 43. Art.	Egoera	Ohar.
IZAERA NAZIONALEKO FUNTZIONARIAK <u>Idazkari-Kontuhartzaitzaren Azpimaila</u> IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA	1	B	J	70%
ADMINISTRAZIO OROKORRAREN MAILA <u>Laguntzaileen Azpimaila</u> ADMINISTRAZIO OROKORREKO LAGUNTZAILEA	1	D	J	
ADMINISTRAZIO BEREZIAREN MAILA <u>Azpimaila Teknikoa</u> * Mota: Erdiko Teknikariak GIZARTE LAGUNTZAILEA <u>Administratiboa</u> * Mota: Laguntzailea LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA <u>Zerbitzu Bereziak</u> *Mota: Ofizioetako Pertsonala ZERBITZU ANITZETARAKO OFIZIALA GARBITZAILEA	1 1 1 1	B D D E	Exzedent. J J J	36% 40%

BEHIN-BEHINEKO LAN PERTSONALARI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

IZENA	Lanp. Kop.	T.6/89 L. 43. Art.	Egoera	Ohar.
ADMINISTRAZIO BEREZIAREN MAILA <u>Azpimaila Teknikoa</u> GIZARTE LAGUNTZAILEA	1	B	BB	%36

<u>ADMINISTRAZIO BEREZIAREN MAILA</u> Zerbitzu Bereziak				
ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILEA	1	E	BB	%42

4.- ALKATETZA DEKRETUAK

HIRURTEKOEN ERREKONNOZIMENDUA – 665/2006

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA andreak, Udaletxe honetako plantilako langile denak, bere BEDERATZIGARREN hiruurtakoaren aintzatespena eskatu eta Idazkariak eskaera onartu duenez, honen bidez, zera ERABAKI DUT:

LEHENENGO.- ANA JESUS ZABALA GARMENDIA andreari 2006ko Abenduaren 1-etik BEDERATZIGARREN hiruurtako duen eskubidea aitortzea, dagokion eraginetarako.

BIGARREN.- Ebazpen hau Langile Erregistroari eta Fondo Kontuhartzaitzari jakinaraztea eragina izan dezan, eta bestalde, honek berekin dakarren ordainketa nominan sartzea.

ANGEL GARRIDO – 669/2006

IKUSIZ 2006ko ekainaren 12an Alkateak luzatutako Dekretua, non, Angel Garrido Alonso jaunari, hilabeteko epea ematen zitzaien, Goltzur zelaiko zonaldean, Gazteluko mugatik Goltzur baserriraino doan pistan aldatutako gainazala bere jatorrizko egoerara berreskuratzeko.

IKUSIZ Udaleko zerbitzu teknikoek gai honi buruz 2006ko uztailaren 5ean eta urriaren 18an luzatutako txostenak.

KONTUAN HARTUAZ Alegazioak egiteko emandako epearen barruan, Garrido jaunak berraztertze helegitea aurkeztu zuela Udalaren

aurrean, ekainaren 12ko Alkatetza Dekretua bertan bera uztea eskatuz.

KONTUAN HARTUAZ Udaleko zerbitzu teknikoek gai honi buruz 2006ko uztailaren 5ean luzatutako txostenean, baserrirako bidea beharrezkoa dela eta are gehiago bertan obrak burutu ahal izateko guztiz ezinbestekoa dela onargarria, baina era horretako obra bata egiteko, burutu diren zabalkuntzak eta abar kontutan hartuta udalaren adostasuna eta ikusonetsiarekin egin behar direla, eta bestalde, Goltzur Zelaiko zonaldeko Paisaiaren babesa dela eta, pistaren hobekuntza horrek bizilagunak ez diren bestelako autozko sarrera irekia ekar dezake eta hau da hain zuzen udalak saihestu nahi duen aisia intentsiboa gertatzeko arriskua ekar dezakeena. Guzti hori kontuan hartuaz, ondorengo proposatzen du, bere txostenean:

- Bidearen sarreran giltzadun pibote bat edo giltzatutako ataka jartzea, bertako sarbidea bizilagunek eta udal langileek izan dezaten soilik.
- Udal langilearekin batera bidearen ikuskaritza egitea, talud-ak eta abar egoki diren ikusteko.
- Egindako lanen ardura, bere gain hartzea gutxienez urte beteko epean (luzirik sortu ez direla edo arriskurik ez dagoela zehazteko).
- Taludeak eta pista bazterrak berdetzeko neurriak hartzea beharrezkoak diren landaketak eginez.

KONTUAN HARTUAZ 2006ko urriaren 18an Udal Teknikariak, egindako ikustaldian, bide bazterreko taludeak hobetu direla eta belar haziak, haziak hartu ez duen arren, garoa jadanik ateratzen hasi dela, eta bidearen errebueltako batean, urak bidexkak egiten ari dela eta hori saihesteko bidea egitea komeni dela, ikusi zuela, eta ondorioz bere txostenean ondorioztazen duela, bidearen errebueltak bateko ubideak hobetu beharko liratekeela, eta urte beteko bermea mantendu beharko dela burututako lanetan.

KONTUAN HARTUAZ Toki Erregimenaren Oinarri Legearen 21.1k) eta 68.1 Artikuluak xedatutakoaren arabera.

ERABAKI DUT

Lehenengo: Ontzat eman Garrido jaunak Gazteluko mugatik Goltzur baserriraino doan pistan aldatutako gainazala bere jatorrizko egoerara berreskuratzeko egindako lanak, nahioz eta bidearen errebueltak bateko ubideak hobetu beharko ditu, udal teknikariak bere txostenean agindu bezala.

Bigarren: Luizirik sortu ez direla edo arriskurik ez dagoela zehazteko, egindako lanen ardura, bere gain hartuko du Garrido jaunak urte beteko epean, eta horretarako HIRU MILA (3.000,-) €-ko bermea jarri beharko du Udal honetan.

JOSE M^a VALMASEDA MOCOROA – 678/2006

Jose M^a Valmaseda Mocoroa-k, herri honetako Irunzubi Industrialdea, 6an, EDARIEN GARRAIOA jartzeko eta iharduera horri ekiteko jarraitutako espedienteak ikusiz gero.

Kontutan hartuaz, bere tramitazioa, aplikagarri diren legeen arabera egokitu dela, espedientean, Udal Teknikariek eta Osakidetzak luzatutako txostenak daudela, eta interesatuei dei egin zaiela, jendaurrean jarritako iragarkien bidez.

Kontutan hartuaz, eskatutako aktibitatea, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamentu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak, EDARIEN GARRAIOA bezala, klasifikatu duela.

1961eko Azaroaren 30eko IGOKA Erregelamenduak eta ebazpen osagarriek diotenaren arabera, ERABAKI DUT:

1.- JOSE M^a VALMASEDA MOCOROA baimentzea, herri honetako Irunzubi Industrialdea, 6an, EDARIEN GARRAIOA jartzeko, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiroak ezarritako neurri zuzentzaileak bete behar direlarik:

- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailordetzak bidalitako txostena eransten da.

A) BALDINTZAK

1.- Aldeko Ikuskaritza Akta lortu aurretik ezin izango da, aktibitatea martxan jarri.

2.- Akta hori lortu ahal izateko, Jose M^a Valmaseda Mocoróa-k Udalari eskatu beharko dio, Ikuskaritza bisita egiteko.

1998ko otsailaren 27ko 3/1998ko Legearen, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorren 61.4 artikuluan ezarritakoari jarraiki, jarduera ezin izango da martxan jarri, Irekitzeko Lizentzia eskuratu arte.

Aipatutako Irekitze Lizentzia eskuratzeko derrigorrezkoa da eskumena duen funtzionari tekniko batek dagokion egiazpenerako bisitaldia egitea.

ONIK SISTEMAS DE ELEVACIÓN S.L. – 681/2006

Onik Sistemas de Elevación, S.L.k, herri honetako Irurzubi Industrialdea, 7an, Jasotzaile Ekipoen Eraikuntza eta Merkaturatzea jartzeko eta iharduera horri ekiteko jarraitutako espedientea ikusiz gero.

Kontutan hartuaz, bere tramitazioa, aplikagarri diren legeen arabera egokitu dela, espedientean, Udal Teknikariek eta Osakidetzak luzatutako txostenak daudela, eta interesatuei dei egin zaiela, jendaurrean jarritako iragarkien bidez.

Kontutan hartuaz, eskatutako aktibitatea, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamentu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak, JASOTZAILE EKIPOEN ERAIKUNTZA ETA MERKATURATZEA bezala, klasifikatu duela.

1961eko Azaroaren 30eko IGOKA Erregelamenduak eta ebazpen osagarriek diotenaren arabera, ERABAKI DUT:

- 1.- ONIK SISTEMAS DE ELEVACIÓN, S.L. baimentzea, herri honetako Irurzubi Industrialdea, 7an, Jasotzaile Ekipoen Eraikuntza eta Merkaturatzea jartzeko, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiroak ezarritako neurri zuzentzaileak bete behar direlarik:

- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailordetzak bidalitako txostena eransten da.

B) BALDINTZAK

- 1.- Aldeko Ikuskaritza Akta lortu aurretik ezin izango da, aktibitatea martxan jarri.
- 2.- Akta hori lortu ahal izateko, Onik Sistemas de Elevación S.L.k, Udalari eskatu beharko dio, Ikuskaritza bisita egiteko.

1998ko otsailaren 27ko 3/1998ko Legearen, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorraren 61.4 artikuluan ezarritakoari jarraiki, jarduera ezin izango da martxan jarri, Irekitzeko Lizentzia eskuratu arte.

Aipatutako Irekitze Lizentzia eskuratzeko derrigorrezkoa da eskumena duen funtzionari tekniko batek dagokion egiazpenerako bisitaldia egitea.

A-3 ZONALDEAREN IBAIALDEKO PASEALEKUA – 691/2006

IKUSIRIK.- 2006ko abuztuaren 30ko Udalbatzarraren bidez, Lizartzako A-3 Zonaldearen Ibaialdeko Pasealekua Lanen kontratazioa, behin betiko esleitu zituela.

KONTUTAN HARTUAZ.- 2006ko irailaren 6an, Lizartzako Udala eta Construcciones y Excavaciones Manuel Echaide, S.L.ren artean sinatutako Administrazio Kontratuaren arabera, Lizartzako A-3 Zonaldearen Ibaialdeko Pasealekua Lanak gauzatzeko konpromezua hartu zuen.

Guzti hori kontutan hartuaz, zera ERABAKI DUT:

- 1.- Construcciones Manuel Echaide S.L,k aurkeztu eta Udaleko Arkitektoa den, Pilar Azurmendi Etxegaraik onetsitako, Lizartzako A-3 Zonaldearen Ibaialdeko Pasealekua Lanen Likidazioa, BERROGEITA HAMABOST MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA BAT euro BERROGEITA HAMALAU Zentimo (55.861,54) €-takoa onartzea.
- 2.- Indarrean dagoen Aurrekontuko 3.0000.601.511.02.01.2003 patidaren kargura, 55.861,54 €-tako gastua onartu eta ordainketa agintzea.

RAUL PASTOR GARCIA – 697/2006 – Etxeko leihoak aldatu eta barruko distribuzioa aldatu.

MANIPULADOS DEL ARAXES – IGOKA

IKUSIRIK.- MANIPULADOS DEL ARAXES-k, Irurzubi Industrialdea, 8an kokatuko den, PAPERAREN MOZKETA ETA PAKETATZEA jartzeko baimena eta iharduera horri ekiteko jarraitutako espedientea ikusiz gero.

IKUSIRIK.- Kontutan hartuaz, bere tramitazioa, aplikagarri diren legeen arabera egokitu dela, espedientean, Udal Teknikariek eta Osakidetzak luzatutako txostenak daudela, eta interesatuei dei egin zaiela, jendaurrean jarritako iragarkien bidez.

KONTUAN HARTUAZ.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, aldeko txostena luzatu duela.

Horren arabera, zera ERABAKI DUT:

1.- MANIPULADOS DEL ARAXES-k aurkeztu duen, herri honetako Irunzubi Industrialdea, 8an kokatuko den, PAPERAREN MOZKETA ETA PAKETATZEA Irekiera baimena egiteko eskaturiko baimenari, aldeko txostena luzatzea.

2.- Ihardueraren ezaugarrien arabera, PAPERAREN MOZKETA ETA PAKETATZEA kalifikazioa proposatzen da.

BILKURAKO DEIA

Idazkariak prestatutako espedienteen zerrenda ikusirik, berak lagunduta, eta Antolaketa eta Ihardutze Araudiaren 82.1 artikulua, eta arau baterakorrak, ikusirik, ERABAKI DUT:

1.- ABENDUaren 29an, goizeko 8tarako, Bilkura Nagusirako deia luzatzea, hurrengo GAI ZERRENDAREKIN:

1.- Aurreko Bilkuretako Akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.

2.- Aurrekontuaren Kreditu Aldaketa 3/2006.

3.- 2007 urterako Aurrekontu Orokorra.

4.- Alkatetza Dekretuak.

5.- Bestelakoak.

2.- Idazkariak, Udaleko zinegotziei deia egiteko, beharrezko diren tramiteak burutuko ditu, erabaki hau beteaz.

5.- BESTELAKOAK

Ez dago bestelakorik.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, goizeko zortzi t'erdia direnean.